



Irurtzun-Andoain autobidea

Eli Galdos Lurraldearekin bilduko da abuztuaren 5ean Diputazioan

Jonan Fernandez: «Instituzioen eta Lurraldearen arteko akordioa da konponbide bakarra»

Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia Lurraldearekin bilduko da datorren abuztuaren 5ean, Jonan Fernandezek atzo egunkari honi jakin erazi zionez. Bileraren eskaera duela egun batzuk egin zion Lurraldeak eta Galdosek baiezkota eman zuen laster batean.

PELLO URZELAI / BERASTEGI

Lurraldea koordinadorak, Leitza eta Berastegi artean egin duen akanpadaren balantzea egiteko eta erakundea eta Lurraldearen beraren arteko akordioaren beharra azaltzeko asmoz, akanpada lekuan izandako prentsaurrekoan jakin erazi zuen Eli Galdosi bilera baten eskakizuna egin diola eta baiezkota jaso duela.

Bilera honen eguna zehaztu aurretik, Lurraldeak Eusko Alderdi Jeltzalearekin harramenen bat izan duela onartu zuen Jonan Fernandezek, baina zehaztasunik eman gabe. «Ez da izango Lurraldea beharrezko diskrezioa hausten duenik», esan zuen.

Gipuzkoako diputatu nagusiarekin bildu edo biltzeko asmorik ote zuen galdetuta, Lurraldearen eskaerari erantzunez datorren abuztuaren 5ean bera eta Eli Galdos bilduko dira eman zuen aditzera Jonan Fernandezek.



Lurraldeako kideek akanpada lekuan eman zuten prentsaurrekoa. VILLAGRAN

«Bilera honi buruz ez dugu oso ikuspegi baikorra, EAJrentzat kortsiazko zita bat dela iruditzen bait zaigu, gatazka honetan distraitzeko eta entrenitzeko estrategiaren barruan kokatzen dena», adierazi zuen Jonan Fernandezek.

«Makinek lanean jarraitzen duten bitartean bilera bat onartzeak ez du beraien jarrera aldatzen, aitzitik, distraitzeko estrategia pausua dela dirudi; elkarriketarako borondatea lanei dagozkien zeinu argiekin adierazi behar bait da», erantsi zuen Fernandezek. Galderen aurretik, instituzio eta koordinadoraren arteko akordio bat erdiesteko beharra azpimarratu zuten Lurraldeako kideek.

AKORDIOA KONPONBIDE BAKARRA

«Instituzioen eta Lurraldea mugimendu sozialaren arteko akordioa da Leitzarango autobidearen auziaren konponbide bakarra», adierazi zuen atzo Jonan Fernandezek, Lurraldeako kideek akanpadaren lekuan eskaini zuten prentsaurrekoan.

«Gurez ustez, aurtengo otsailaren 25ean Donostian 'Konponbide demokratiko baten alde' mobilizazioan parte hartu zuten 35.000 pertsonak konpromezua eta erantzukizuna jarri zituzten Lurraldearengan, gatazka elkarriketaren bidez konpontzeko», azaldu zuen Jonan Fernandezek.

«Eta elkarte hau, bere gain hartutako erantzukizuna betetzeko prest dago», gehitu zuen.

Helburu hau lortzeko Lurraldea «baikor» dagoela esan zuen Jonan Fernandezek. «Bideragarritasun tekniko, politiko eta sozialaren ikuspuntutik —azaldu zuen—, instituzioen eta Lurraldea mugimendu sozialaren arteko akordioa da Leitzarango autobidearen gatazkarentzako konponbide errealista bakarra».

Lurraldearen bozeramaleak Eli Galdos eta Gabriel Urralbururi dei egin zien aipatu erreflexioa kontutan hartzeko: «Lurraldearekin akordioa bere baitan ez duen edozein estrategia porrot egitera kondenatuta dago».

Akordioa atzeratzen baldin bada, Jonan Fernandezek esanetan, «koordinadora bere lana berrindartzeko prest dago». Gaur, Azpizko gainean 12.30etan egingo den konzentrazioaren ondoren, abuztuaren lau mobilizazio egingo ditu Lurraldeak, 8, 14, 22 eta 29n. «Paseo erreibindikatiboak» izango dira Berastegiko plazatik abiatuko direnak. Irailaren leian, Bi Aixitarte pasabidean mendizale eta eskalatzailen biltzarra egingo da.

Akanpadari dagokionez, partaidetza ona izan dela esan daiteke, 45 denda eta 150 pertsona inguru zenbait ahal bait ziren atzo. Billabonako koadrilen bisita izan zuen atzo akanpadak.

Iñaki Anasagasti: «Gizartearentzat txarra litzateke hirukoitza haustea»

DONOSTIA

Gasteizko Gobernuak mantentzen duen pakto hirukoitzari buruz galdetu ziotenean, Anasagasti «lau urteko legegintzaldia beteko duela» uste duela esan zuen. Kanpotik egiten zaizkion erasoak indartu besterik ez dute egiten, bere esanetan. «Euskal gizartearentzat txarra litzateke» hitzermena haustea, «Euskadik egonkortasun, gobernabilitate eta lasaitasuna behar duelako».

Euskal parlamentariak onartu egin zuen Euskadiko Ezkerraren krisiak hirukoitzaren bidean oztopo izan zela. Hala ere, EEren barnean istilutan dauden bi alderdiko kontseilariak Ardanazaren gobernuan jarraituko dute «bi parteez hala adierazi digutelako». Ez zuen Madrileko Gobernuan sartzeko PP edo PSOE-rekin itunak sinatzeko zurrumurrua komentatu nahi izan, bere ustez «gauza horietaz hitzegiteko goizegi da oraindik».

IRREGIAREN ETORRERA DELA ETA

Iñaki Anasagasti EAJko parlamentariaren esanetan, Europa Press agentziak egindako elkarrizketan adierazi duenez «HBk erregearekin elkarrizketatu beharko luke, bere aurka manifestazioak antolatu beharrean». Espainiako Parlamentuko Euskal Taldearen bozeramalearen ustez, HBk «kalean erregea iraindu beharrean, elkarriketa bat eskatu beharko lioke beharrezkotzat jotzen dutena adierazteko». Jokiera hau «zibilizatutako pertsonena da» Anasagastiren ustez, eta erregea entzuteko prest egongo zela ziurtatzen du. Hala ere, buru jeltzideak ez zuten ziurtasun bera agertu Erregeak bere eskakizunei erantzun ote zien galdetu ziotenean. Anasagastik positiboki baloratu du errege-erregimen etorrera, eta maizago gertatu behar zela adierazi zuen, «hamar urtetan behin etorri beharrean».

Poliziaren aurkako atentatua Donostian

Poliziaren aurkako bomba-auto bat lehertarazi egin dute Donostian

DONOSTIA

Bomba-auto bat lehertarazi egin zuten atzo goizaldean Donostian, polizi kotxe bat igarotzen ari zenean. Atentatua 1.55etan gertatu zen Errondo pasealekua eta Ferrerías kalea elkartzen diren lekuan eta kotxearen barruan zihozten bi poliziek zauri arinak besterik ez zituzten izan bizkar eta aurpegian, polizi autoaren blindajearekin esker. Gobernu Zibileko iturriek adierazi dutenez, bomba-autoak ustez amonala den 25 kilo lehergailu eta metraila zituen bere barnean.

Eztandaren eraginez 39 kotxe eta gertuko etxebizitza batzuk kalteak izan zituzten. Lehergailua jartzeko erabilitako autoa guztiz txikitua gelditu zen. Polizi autoaren (DGP-2916-E matrikulakoa Citroen BXa) atzekaldea eta aurrekaldea ere kalteak izan ziren, azken honek aurrean aparkatuta zeuden kotxei jo bait zien.

Atentatua egiteko erabili zen kotxea, Alfa Romeo 33 gorria, bi ordu lehenago armaturik zihozten bost lagunek lapurtu zioten Igeldo auzoaren inguruan zegoen bikote bati. DYAr egindako deian, ETArren ize-nean hitzegiten zuten lagun batek bi gazte zuhaitz bati lotuta zeudela ohartarazi zuen. 3.30etan goardia zibilek aurkitu zuten bikotea, kotxea lapurtu zitzaientz lekutik 3 kilometrotara, Vasco Press agentziak agertu duenez.

Eztanda egin eta berehala, Polizia Nazionaleko kideak eta EDEX taldekoek (lehergailu indargabetzeko taldea) bomba-autoaren hondakinak arakatu zituzten. Polizi iturriek adierazi dutenez, atentatugileak Errondo pasealekuaren beste aldean dagoen baso batetik jarri zuten martxan lehergailua. Udaltzaingoak metraila bezala erabili zitezkeen torniloak aurkitu zituzten atentatu lekutik 500 metrotara. Jose Maria Gurrutxaga, Gipuzkoako Gobernadore Zibila,



Bi poliziek zauri larrik gabe atera ziren blindajearekin esker.

EFE

atentatua gertatu zen lekura iritsi zen baina ez zuen inolako adierazpenik egin.

Vasco Press agentziak kontsultatutako polizi iturrien arabera, azken egunotan izandako atentuen ugaltzeak Erregearen bisitaren aurrean «atentzioa deitzea» du helburu. «Donosti» komandoa litzateke ekintza guztien egilea Gobernu Zibilaren iritziz, hilabete batean inolako aten-

taturik egin gabe egon ondoren. 1989ko apirilean antolatu zen komando honi 18 atentatu eta bost kotxe lapurreta leporatzen zaizkio. Ekintza hauen ondorioz, 5 pertsona hil dira eta beste 37k zauriak izan dituzte. Martxan dabilenetik egindako 59 atentatuetan 14 hildako eta 48 zauritutako izan dira. Hauetako 8, Amarako auzoan dagoen Gobernu Zibilaren egoitza inguruan izan dira.

Manifestazio bat izan da Irungo atentatuaren aurka

IRUN

Manifestazioa egin zen atzo Irunen, ostegunean Goardia Zibilaren koartelaren aurkako atentatugatik protestatzeko. Antolatzaileen esanetan, mila pertsona inguru bildu ziren. Belasco-Eneako Bizilagunen Elkarteak antolatutako manifestaldia, Irungo kaletan barrena ibili zen «Por la paz y contra el terror» (Bakearen alde eta terrorearen aurka) lelopean.

Manifestaldi amaieran antolatzaile batek atentatua gaitzetsi zuen «basatia eta ankerra» izan zela adieraziz. Ekintzaren ondorioz «errugabe asko hil zitezkeen alfer alferrik» esan zuen bozeramaleak eta han bildutakoek «kaltetu guztiak solidarizatzea» eskatu zien.

Ostegun goizeko atentatuan 16 pertsona zauritu zituzten eta kalte material ugari sortu ziren koartel, etxe eta zenbait autoetan.